

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GATZAGA BURADONGO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioek toki jabari publikoaz egiten duten erabilera pribatiborako edo aprobetxamendu bereziko tasa arautzen duen zerga ordenantza

Hitzaurrea

Espainiako Konstituzioaren 133.2 eta 142 artikuluek eta Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak emandako araudi eskumenak baliatuz, eta bat etorritz testu bereko 20. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin —batez ere, foru arau horren 24.1 artikuluan xedatutakoarekin—, zerga ordenantza honen bidez arautuko da energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiteko tasa, ordenantza honetan ezarritako araubide eta tarifen arabera. Nahitaezko txosten tekniko-ekonomiko baten emaitza izan dira tarifa horiek, eta Auzitegi Gorenak zuzenbidearen araberrakotzat jo ditu txostenean jasotako kalkulu metodoa eta parametroak.

1. artikulua. Aplikazio eremua

Ordenantza honek arautzen duen tasa ordaindu behar dute Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorren 35. artikulua aipatzen dituen eta gero azalduko diren espezifikazio eta zehaztapenekin tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboa egiten duten edo haren aprobetxamendu bereziari onura ateratzen dioten edo onura horiek jasotzen ari diren pertsona fisiko edo juridiko, sozietate zibil, ondasun erkidego eta gainerako entitateek.

Ordenantza honen aplikazioa araudi orokorrari buruzkoa da, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 24.1.a) artikuluan ezarritako ordaindu beharreko tasari dagokiona tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik, baldin eta ez badira bizilagun guztiei edo gehienei eragiten dien interes orokorreko zerbitzuen enpresa hornitzaileak eta ez badute udal bide publikoen lurra, lurpea edo hegala okupatzen (24.1.c) artikuluan aurreikusitako baldintzak).

2. artikulua. Zerga egitatea

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 20. artikulua arabera, lurlean, lurpean edo lurgainean egindako toki jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak osatzen dute tasaren zerga egitatea:

a) Energia garraiatzeko instalazioak eta haien funtsezko elementu guztiak (honako hauek, adibidez: ainguraketa kutzak; dorre metalikoak; transformadoreak; energia elektrikoa, gasa, ura edo bestelako energia hornidurak garraiatzeko edo banatzeko instalazioak edo lineak; ponpatzeko instalazioak eta antzeko gainerako elementuak, baldin eta energiarekin zerikusia badute eta apartatu honetan jasota egon ez arren tokiko jabari publikoa aprobetxatzea edo erabiltzea berekin badakarte.

b) Gasa, ura, hidrokarburoak eta antzekoak garraiatzeko instalazioak.

Toki jabari publikoaren aprobetxamendu berezia gertatuko da lehen aipatu diren eta, oro har, jabari publikoa materialki okupatzen duten instalazioak erabili behar direnean.

Ordenantza honen ondorioetarako, toki jabari publikotzat hartuko dira administrazio batzar honen udal mugartean dauden zerbitzu publikoko edo jabari publikoko erabilera ondasun guztiak, baita herri ondasunak edo batzarreko auzotarren erkidearenak direnak ere, ondare ondasunak salbuetsiz.

Eta, Auzitegi Gorenak orain harte jaso duen bezala, funtsezkoa da txosten bat egotea, honakoa: "un informe técnico económico en el que constan los diversos valores del suelo, de la construcción, de los solares, etc., a partir de los que pretende aproximarse al valor de mercado del dominio público, del que luego estima un valor de usufructo, incluso con los criterios de otras normas fiscales, para determinar ese valor de mercado de la utilidad derivada de la utilización o aprovechamiento del dominio que ha de utilizarse, por imperativo legal, para establecer la cuantía de esta clase de tasas"

Txosten hori ordenantza hau onesten duen espedientearen zati da, eta interesdun guztiek kontsultatu ahal izango dute.

3. artikulua. Subjektu pasiboak

Tasen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorraren 35.4 artikulua aipatzen dituen eta tokiko jabari publikoa beraien mesedetan erabiltzen duten edo modu berezian aprobetxatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak.

Batez ere, tasa honen subjektu pasibo izango dira, geroago aipatuko diren kategoria eta klaseekin, Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorraren 35.4 artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, uraren, gasaren, elektrizitatearen eta hidrokarburoen sektoreetako enpresa edo ustiatzaile direnak, baldin eta tokiko jabari publikoa beraien mesedetan modu berezian baliatu, erabili edo aprobetxatzen badute, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauaren, uztailaren 19koaren, 20. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetakoren baten arabera, esaterako energia elektrikoa, hidrokarburoak (gasbideak, oliobideak eta antzekoak) eta ura ekoitzi, garraiatu, banatu, hornitu eta merkaturatzen duten enpresak, baita horien elementu gehigarriak eta beharrezkoak ere administrazio batzar honetako udal mugartean edo beste edozein lekutan zerbitzua emateko, baina administrazio batzar honetako udal jabari publikoa aprobetxatu edo erabiltzen badute, instalazioekin eragina sorraziz tokiko jabari publikoan.

4. artikulua. Zerga oinarriak, tasak eta kuotak

Ordenantza honetan araututako tasen zenbatekoa honakoa izango da:

4.1. Auzitegi Gorenak epaietan ezarritakoaren arabera (apirilaren 26ko 718/2024 zenbakia), bi zerga oinarri ezartzen dira, tokiko jabari publikoa erabiltzeko edo aprobetxamendu berezia egiteko moduen arabera berezita, forma bakoitza erabiltzeko intentsitatea kontuan hartuta:

a) Erabilera pribatiboan edo horren antzeko kasuetan – eta, Auzitegi Gorenaren arabera, instalazio finkoek osatzen dituzte, hala nola metalezko dorreek, zutoinek, amarratze-kutxek, transformadoreek edo beste elementu mota batzuek –, zerga oinarria, txosten tekniko ekonomikoak jasotzen duen bezala, honako hau izango da: eraikuntzak dituzten landa lurzorua katastro balioa gehi erabilera, jabari edo zerbitzu publikoko ondasunak eta herri ondasunak finkatzen, erabiltzen edo aprobetxatzen dituzten instalazioen balioa. Horrenbestez, subjektu pasiboek ez dute eraginpeko lurren jabetza, baina beren enpresa jarduerarako erabiltzen dutenez, tokiko jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendu komun eta publikoa murriztu egiten da.

b) Jabari publikoaren aprobetxamendu bereziko kasuetako zerga oinarria, txosten tekniko ekonomikoak jasotzen duen bezala – eta jurisprudentziak xedatutakoari jarraituz –, subjektu pasiboari aprobetxamenduak ematen dion erabilgarritasunaren arabera izango da.

4.2. Zerga tasak:

Arestian definitutako zerga oinarrietan, ehuneko 5eko eta ehuneko 100eko zerga tasak aplikatuko dira, hurrenez hurren, deskribatutako ordenaren arabera.

4.3. Zerga kuota.

Aurreko baturaren emaitza zerga kuota izango da, eta ordenantza honi erantsitako tarifetan jasota dago. Aipatutakoak, aldi berean, txosten tekniko ekonomikotik datoz. Horrela, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 25. artikuluan jasotako aurreikuspenak betetzen dira.

Tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik — edo antzeko kasuengatik — edo aprobetxamendu bereziagatik aurreikusitako tasen zenbatekoa finkatzeko, erabilera edo aprobetxamendu horretatik eratorritako erabilgarritasunak merkatuan izango lukeen balioa hartzen da erreferentziatzat, ukitutako ondasunak jabari publikokoak ez balira bezala, merkatuko balioa edo dakarren erabilgarritasuna jasotzen dituen txosten tekniko ekonomikoak aintzat hartuz, hitzaurrean aipatutako Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak jaso duen bezala. Txostena espedienteen sartuko da dagokion erabakia hartzeko, indarreko 2/2004 Errege Lege Dekretuaren 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Horretarako, hori guztia Auzitegi Gorenak baliozkotutako sistemaren eta irizpideen arabera jasotzen da, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen 24. artikuluko 1.a) apartatuari jarraituz (auzo batzar honen kasuan, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 25. artikuluari jarraituz), erabilera pribatiboaren – edo antzeko kasuen – eta aprobetxamendu bereziaren izaera espezifikoa kontuan hartuta. Hori guztia, bat etorri uztailaren 13ko 25/1998 Legearen 64. artikuluan xedatutakoarekin.

Tasaren zerga kuota ordenantza honen osagai den txosten tekniko ekonomikoari dagokion tarifa eranskinen dago. Erabilitako metodologiarekin, eranskin horretan lortu eta jaso du kasu bakoitzari dagokion zerga kuota.

5. artikulua. Zergaldia eta sortzapena

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin, toki jabari publikoaren erabileran edo aprobetxamendu berezian hasi edo lagatzeko kasuetan izan ezik. Kasu horietan hiruhileko hainbanaketa aplikatu beharko da, honako arau hauen arabera:

a) Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hastearen ondoriozko alten kasuan, ekitaldia amaitzeko geratzen diren hiruhilekoei dagokien kuota likidatuko da, alta egindako hiruhilekoa barne hartuta.

b) Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia lagatzearen ondoriozko bajen kasuan, ekitaldia hasi zenetik igarotako hiruhilekoei dagokien kuota likidatuko da, lagatzea gertatu den hiruhilekoa barne hartuta.

2. Ordenantza honetan araututako tasa ordaintzeko betebeharra honako une hauetan sortzen da:

a) Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu edo erabilera pribatibo berriak direnean, dagokion lizentzia eskatzeko unean.

b) Ordenantza honetako 1. artikulua aipatzen duen tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziak edo erabilerak lizentzia edo baimenik behar ez duenean, tokiko jabari publikoaren aipaturiko aprobetxamendua edo erabilera pribatiboa hasitako unean.

3. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziak edo erabilera pribatiboak hainbat ekitalditan luzatzen direnean, tasaren sortzapena urte bakoitzeko urtarilaren 1ean gauzatu da eta zergaldiak urte naturala hartuko du.

6. artikulua. Kudeaketa arauak

1. Oro har, tasa autolikidazio araubidean eskatuko da. - Subjektu pasiboari kuotak jakinaraztearen bidez ere eskatu daiteke, baldin eta ez bada autolikidaziorik egin, edo subjektu pasiboak ez badu aitorpenik aurkeztu zerga kuotak kalkulatzeko behar diren elementuei eta gainerakoei dagokienez.

2. Tarifen arabera ordaindu beharreko kopuruak eskatutako edo egindako aprobetxamendu bakoitzeko eta erabilera pribatibo bakoitzeko likidatuko dira, era honetan:

a) Aprobetxamendu berrien emakiden kasuan, aprobetxamendu bereziaz gozatzeko baimen eskaerarekin batera, behar bezala beteta aurkeztuko da tasaren autolikidaziorako inprimakia; gainerako kasuetan artikuluko honen 2. apartatua aplikatuko da, hurrengo paragrafoarekin lotuta.

Bestela, idazkaritzan ere aurkez daitezke aitorpenaren elementuak, eta hango langileek lagunduko diote interesdunari zorra zenbatekoa den zehazten. Kasu horretan, interesdunari abonua agiria emango zaio, kuota une horretan bertan ordaindu ahal izateko, edo dagokion epean, aipatutako agirian adierazitako ordainketa lekuetan.

b) Lehendik dauden edo baimenduta dauden aprobetxamendu edo erabileren kasuan, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan ordainduko da tasa. Ordainketa errazteko, edo subjektu pasiboak ez baldin badu daturik ematen, administrazio batzar honek dagokion likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari etxera bidali ahal izango dio likidazio agiri bat, ordainketa egin dezan banketxe laguntzailean edo udal aurrezki kutxan.

Hala ere, aipatutako ordainketa agiria ez jasotzeak ez du esan nahi administrazio batzarrak ezarritako epean tasa ordaintzeko betebeharra bertan behera geratzen denik.

3. Subjektu pasiboak tasaren ordainketa helbideratzeko eskatu ahal izango du. Kasu horretan, tasaren zenbatekoa borondatezko ordainketa aldiko azken hamabostaldian zordunduko da kontuan, eta tasaren zerga kuotaren ehuneko 5eko hobaria aplikatuko da, bat etorri Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 9. artikuluko 1. apartatuan ezarritakoarekin.

7. artikulua. Tasak jakinaraztea

1. Ordenantza honen hizpide diren aprobetxamendu edo erabilerengatiko zerga zorra interesdunari jakinaraziko zaio autolikidazioa aurkezteko unean, edo likidazioa egiteko unean, autolikidaziorik aurkezten ez badu.

Edonola ere, eta aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, autolikidazioa egiaztatzean gaizki eginda dagoela ikusten bada, likidazio osagarria egingo da.

2. Ordenantza honen xede diren aprobetxamendu berezi edo erabilera pribatibo jarraituen-gatiko tasei dagokienez, aldizkakoak badira, subjektu pasiboari pertsonalki jakinaraziko zaio likidazio bidez, eta une horretatik aurrera zergadunen erregistroan izena emanda dagoela ulertuko da. Hurrengo ekitaldietako tasa pertsonalki jakinarazi ahal izango zaio subjektu pasiboari, edo modu kolektiboan, errolda administrazio batzarreko iragarki taulan jarriz denbora tarte batez (probintziako aldizkari ofizialean iragarriko da tarte hori).

3. Ordenantza honetan araututako aprobetxamenduen emakidan edo erabilera pribatiboan interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek eta gainerako entitateek, edo administrazio emakiden eta bestelako baimen legalen titularrak direnek, hala badagokio, udal lizentziarik ez badaukate, eskatu egin beharko dute eta lege izapide aplikagarriak bete beharko dituzte; lizentziarik ez izateak ez ditu salbuetsiko tasa ordaintzetik.

4. Ordenantza honek hizpide dituen ondasunen gaineko okupazioa baimendu ondoren, edo okupazioa ezarri ondoren, aprobetxamendu edo erabilera pribatiborako baimenaren iraupena zehatz definitu ez bada, luzatu egin dela ulertuko da ordenantza honen ondorioetarako, harik eta subjektu pasiboek baja aitorpena aurkeztu arte.

5. Baja aurkezteak ondorioak izango ditu tarifen epigrafeetan adierazitako ondorengo denbora tarte naturalaren lehen egunetik aurrera. - Baja ez aurkezteak finkatuko du tasa ordaintzen jarraitzeko betebeharra.

8. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapenen araubideari dagokionez, indarrean dagoen Zergei buruzko Lege Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

Azken xedapena

Zerga ordenantza hau, orain duen edukiarekin, ALHAOn argitaratzen den egunean sartuko da indarrean, eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da. Indarrean jarraituko du espresuki aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Buradon Gatzagako Administrazio Batzarrak hasierako onespina eman zion, kontzejuaren 2024ko azaroaren 15eko bilkura berezian. Erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko bihurtu da.

Gatzaga Buradon, 2025eko urtarrilaren 23a

Errejidore-lehendakaria

FERNANDO URIARTE FERNÁNDEZ DE PINEDO

1. ERANSKINA: TARIFEN TAULA

I TALDEA ELEKTRIZITATEA AIREKO LINEAK									
EUSKARRIEN EREMUA									
INSTALAZIOA		UNITATEKO BALIOA			Zerga onarria	BALUOKIDETASUN A LUR MOTAREN ARABERA (m ² /ml) (C)	INSTALAZIOEI ESLEITUTAKO BALIOA (Euro/ml) (BxC)	EUSKARRIAREN ZERGA ONARRIA (euro/ml) (A+B) x0.5	EUSKARRIAREN ZERGA ONARRIA x ZERGA TASA (% S) (euro/m ²)
		LURZORUA (Euro/m ²) (A)	ERAIKUNTZA (Euro/m ²) (B)	HIGIEZINA (Euro/m ²) (A+B)	RM = 0,5 (A+B)xRM				
KATEGORIA BEREZIA									
A1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: U<400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	0,077	27,574	27,651	13,826	17,704	488,17 €/ml	13,826 €/ml	0,691 €/m ²
A2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: U<400 Kv. Zirkuitu bakuna	0,077	16,850	16,927	8,464	17,704	298,312 €/ml	8,464 €/ml	0,423 €/m ²
A3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 220 kv sU<400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	0,077	39,015	39,092	19,546	11,179	436,149 €/ml	19,546 €/ml	0,977 €/m ²
A4 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 200 Kv7U<400 Kv. Zirkuitu bakuna	0,077	23,800	23,877	11,939	11,179	266,06 €/ml	11,939 €/ml	0,597 €/m ²
LEHENENGO KATEGORIA									
B1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 110 Kv<U<220 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	0,077	26,333	26,410	13,205	6,779	178,511 €/ml	13,205 €/ml	0,66 €/m ²
B2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 110 Kv<U<220 Kv. Zirkuitu bakuna	0,077	20,137	20,214	10,107	6,779	136,509 €/ml	10,107 €/ml	0,505 €/m ²
B3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 66 Kv<U<110 Kv.	0,077	20,325	20,402	10,201	5,650	114,836 €/ml	10,201 €/ml	0,51 €/m ²
BIGARREN KATEGORIA									
C1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 45 Kv<U<S66 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	0,077	50,926	51,003	25,502	2,376	121, €/ml	25,502 €/ml	1,275 €/m ²
C2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 45 Kv<U<S66 Kv. Zirkuitu bakuna	0,077	29,461	29,538	14,769	2,376	69,999 €/ml	14,769 €/ml	0,738 €/m ²
C3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 30 Kv<U<S45 Kv.	0,077	28,323	28,400	14,200	2,376	67,295 €/ml	14,2 €/ml	0,71 €/m ²
HIRUGARREN KATEGORIA									
D1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 20 Kv<U<S30 Kv.	0,077	29,176	29,253	14,627	1,739	50,737 €/ml	14,627 €/ml	0,731 €/m ²
D2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 15 Kv<U<S20 Kv.	0,077	20,553	20,630	10,315	1,739	35,742 €/ml	10,315 €/ml	0,516 €/m ²
D3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 10 Kv<U<S15 Kv.	0,077	19,691	19,768	9,884	1,534	30,206 €/ml	9,884 €/ml	0,494 €/m ²
D4 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 1 Kv<U<S10 Kv.	0,077	14,534	14,611	7,306	1,517	22,048 €/ml	7,306 €/ml	0,365 €/m ²

LURGIN EREMUA						
INSTALAZIOA	ERAIKUNTZA (Euro/m ²) (A)	BALUOKIDETASUNA LUR MOTAREN ARABERA (m ² /ml) (B)	Instalazioaren balioa (Euro/ml) (AxB)	INSTALAZIOAREN BALIOA LURGIN ZONAN (Euro/ml) (AxB)x0,2	ERABIGARRITASUN ERATORRIAREN BALIOA AxBo,2/40 (Euro/ml)	
KATEGORIA BEREZIA						
A1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: U<400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	27,574	17,704	488,17 €/ml	97,634 €/ml	2,441 €/ml
A2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: U<400 Kv. Zirkuitu bakuna	16,800	17,704	297,427 €/ml	59,485 €/ml	1,487 €/ml
A3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 220 kv sU<400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	39,015	11,179	436,149 €/ml	87,23 €/ml	2,181 €/ml
A4 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 200 Kv<U<400 Kv. Zirkuitu bakuna	23,800	11,179	266,06 €/ml	53,212 €/ml	1,33 €/ml
LEHENENGO KATEGORIA						
B1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 110 Kv<U<220 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	26,333	6,779	178,511 €/ml	35,702 €/ml	0,893 €/ml
B2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 110 Kv<U<220 Kv. Zirkuitu bakuna	20,173	6,779	136,753 €/ml	27,351 €/ml	0,684 €/ml
B3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 66 Kv<U<110 Kv.	20,325	5,650	114,836 €/ml	22,967 €/ml	0,574 €/ml
BIGARREN KATEGORIA						
C1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 45 Kv<U<S66 Kv. Zirkuitu bikoitza edo zirkuitu gehiago	50,926	2,376	121, €/ml	24,2 €/ml	0,605 €/ml
C2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 45 Kv<U<S66 Kv. Zirkuitu bakuna	29,461	2,376	69,999 €/ml	14, €/ml	0,35 €/ml
C3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 30 Kv<U<S45 Kv.	28,323	2,376	67,295 €/ml	13,459 €/ml	0,336 €/ml
HIRUGARREN KATEGORIA						
D1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 20 Kv<U<S30 Kv.	29,176	1,739	50,737 €/ml	10,147 €/ml	0,254 €/ml
D2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 15 Kv<U<S20 Kv.	20,553	1,739	35,742 €/ml	7,148 €/ml	0,179 €/ml
D3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 10 Kv<U<S15 Kv.	19,691	1,534	30,206 €/ml	6,041 €/ml	0,151 €/ml
D4 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa: 1 Kv<U<S10 Kv.	14,534	1,517	22,048 €/ml	4,41 €/ml	0,11 €/ml

U Tentsio izendatua.

220 kv-tik beherako tentsio izendatua duten garraio sareko lineak dagokien tentsioaren kategorian sartuko dira zergak ordaintzeko

I. II TALDEA. ELEKTRIZITATEA LURPEKO LINEAK					
INSTALAZIOA		ERAIKUNTZA (Euro/m2) (A)	BALIOKIDETASUNA LUR MOTAREN ARABERA (m2/ml) (B)	Instalazioaren balioa (Euro/ml) (AxB)	ERABILGARRITAS UN ERATORRIAREN BALIOA Ax8/40 (euro/ml)
KATEGORIA BEREZIA					
A1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa: U2400 Kv.	1185,928	0,600	711,557 €/ml	17,789 €/ml
A2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa: 220 Kv<U<400 Kv. Zirkuitu bakuna	1111,808	0,600	667,085 €/ml	16,677 €/ml
LEHENENGO KATEGORIA					
B1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa: 110 Kv<U<220 Kv.	1063,406	0,500	531,703 €/ml	13,293 €/ml
B2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa: 66 Kv<U<110 Kv.	726,086	0,500	363,043 €/ml	9,076 €/ml
BIGARREN KATEGORIA					
C1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa: 45 Kv<U<66 Kv.	339,860	0,400	135,944 €/ml	3,399 €/ml
C2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa: 30 Kv<U<45 Kv.	295,530	0,400	118,212 €/ml	2,955 €/ml
HIRUGARREN KATEGORIA					
D1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa: 20 Kv<U<30 Kv.	265,978	0,400	106,391 €/ml	2,66 €/ml
D2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa: 15 Kv<U<20 Kv.	236,425	0,400	94,57 €/ml	2,364 €/ml
D3 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa: 10 Kv<U<15 Kv.	141,855	0,400	56,742 €/ml	1,419 €/ml
D4 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa: 1 Kv<U<10 Kv.	118,213	0,400	47,285 €/ml	1,182 €/ml

U Tentsioa izendatua.

220 kV-tik beherako tentsioa izendatua duten garraio sareko lineak dagokien tentsioaren kategorian sartuko dira zergak ordaintzeko

II. TALDEA GASA ETA HIDROKARBURUAK					
INSTALAZIOA		ERAIKUNTZA (Euro/m2) (A)	BALIOKIDETASUNA LUR MOTAREN ARABERA (m2/ml) (B)	Instalazioaren balioa (Euro/ml) (AxB)	ERABILGARRITAS UN ERATORRIAREN BALIOA Ax8/40 (euro/ml)
A MOTA	Gasa edo hidrokarburuak kanalizatzeko metro bat. Diametroa: 4 hazbeteraino	13,266	3,000 m2/ml	39,798 €/ml	0,995 €/ml
B MOTA	Gasaren edo hidrokarburuoen kanalizazio metro bat. Diametroa: 4 hazbete baino gehiago - 6 hazbete.	13,260	6,000 m2/ml	79,56 €/ml	1,989 €/ml
C MOTA	Gasaren edo hidrokarburuoen kanalizazio metro bat. Diametroa: 6 hazbete baino gehiago - 8 hazbete.	19,900	6,000 m2/ml	119,4 €/ml	2,985 €/ml
D MOTA	Gasaren edo hidrokarburuoen kanalizazio metro bat. Diametroa: 8 hazbete baino gehiago - 12 hazbete.	26,530	6,000 m2/ml	159,18 €/ml	3,98 €/ml
E MOTA	Gasaren edo hidrokarburuoen kanalizazio metro bat. Diametroa: 12 hazbete baino gehiago - 16 hazbete.	29,850	8,000 m2/ml	238,8 €/ml	5,97 €/ml
F MOTA	Gasaren edo hidrokarburuoen kanalizazio metro bat. Diametroa: 16 hazbete baino gehiago - 20 hazbete baino gutxiago.	39,800	8,000 m2/ml	318,4 €/ml	7,96 €/ml
G MOTA	Gasaren edo hidrokarburuoen kanalizazio metro bat. Diametroa: 20 hazbete edo gehiago.	39,800	10,000 m2/ml	398, €/ml	9,95 €/ml
H MOTA	Bulkatzeko instalazio bat edo gas edo hidrokarburu biltegi bat. Edukiera: 10 m ³ baino gutxiago.	63,500	100,000 m2/Ud	6.350, €/ml	158,75 €/ml
I MOTA	Bulkatzeko instalazio bat edo gas edo hidrokarburu biltegi bat. Edukiera: 10 m ³ edo gehiago.	63,500	500,000 m2/Ud	31.750, €/ml	793,75 €/ml

III. TALDEA URA					
INSTALAZIOA		ERAIKUNTZA (Euro/m2) (A)	BALIOKIDETASUNA LUR MOTAREN ARABERA (m2/ml) (B)	Instalazioaren balioa (Euro/ml) (AxB)	ERABILGARRITAS UN ERATORRIAREN BALIOA Ax8/40 (euro/ml)
A MOTA	Metro bat hodi. Diametroa: 10 cm-ralno	10,366	3,000	31,098 €/ml	0,777 €/ml
B MOTA	Metro bat hodi. Diametroa: 10 cm baino gehiago - 25 cm	13,292	3,000	39,876 €/ml	0,997 €/ml
C MOTA	Metro bat hodi. Diametroa: 25 cm baino gutxiago - 50 cm	18,975	3,000	56,925 €/ml	1,423 €/ml
D MOTA	Metro bat hodi. Diametroa: 25 cm baino gehiago	22,869	3,000	68,607 €/ml	1,715 €/ml
E MOTA	Metro lineal bat kanal	26,532	D	26,532xD	26,532x0/40

D ..Kanalaren barne perimetroa (m)